



Kodea:
2021HZIP30003

Andoaingo Udala

Unai Rekondo Pérez, Mainer Lainez Lazcoz Alkatea duen, Andoaingo Udaleko (Gipuzkoa) Idazkaria naizenez.

Unai Rekondo Pérez, Secretario del Ayuntamiento de Andoain (Gipuzkoa), del que es Alcaldesa Mainer Lainez Lazcoz.

ZIURTATZEN DUT, A.F.A.J. erregelamenduko 206. artikuluan aurrikusitako salbuespena aintzakotzat harturik, Udalbatzaren Osoko Bilkurak joan den 2021eko irailaren 30an egin zuen ohiko batzarraldian, eta beste zenbaiten artean, ondoko erabakia hartu zuela, zati xedatzaileak honela dioelarik:

CERTIFICO: con la salvedad prevista en el art. 206 del R.O.F.R.J. de las Corporaciones Locales, que el Pleno Municipal, en sesión ordinaria celebrada el día 30 de septiembre de 2021, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo, cuya parte dispositiva dice así:

3.- HAPOk 48 Illarramendi HIEko a.3.01 eta c.05 lursailetakoa xehetasun-azterlana behin betiko izaeraz onartzeko proposamena.

3.- Propuesta de aprobación, con carácter definitivo, del Estudio de Detalle de las parcelas a.3.01 y c.05 del A.I.U. 48 Illarramendi del PGOU.

Ikusirik, 2020ko azaroaren 4an, José M^a Abad Urruzola jaunak, Balfernorte SL eta José Ángel Gaztañaga jaunaren izenean, HAPOk 48 Illarramendi HIEko a.3.01 eta c.05 lursailetakoa xehetasun-azterlana aurkeztu zuela. Azterlan hori José M^a Abad Urruzola eta Ana Goñi Agudo abokatuek eta Blanca Balda Sevilla arkitektoak idatzi zuten 2020ko urrian.

Resultando que, con fecha 4 de noviembre de 2020, D. José M^a Abad Urruzola, actuando en representación de Balfernorte SL y D. José Ángel Gaztañaga, presentó el Estudio de Detalle de las parcelas a.3.01 y c.05 del A.I.U. 48 Illarramendi del PGOU, redactado con fecha octubre de 2020 por los/as letrados/as D. José M^a Abad Urruzola y D^a Ana Goñi Agudo y la arquitecta D^a Blanca Balda Sevilla.

Udal arkitekto aholkulariak 2021eko martxoaren 18an egindako txostena ikusita, 2021eko apirilaren 9ko idazkiaren bidez, eskatzaileari jakinarazi zitzaion aipaturako proiektua izapidetzeko idazkian bertan aipaturako gauzak zuzendu behar zirela.

Resultando que, visto el informe emitido por la arquitecta asesora municipal con fecha 18 de marzo de 2021, mediante escrito de fecha 9 de abril de 2021, se le comunicó al solicitante que para proceder a la tramitación del citado proyecto se debían subsanar los aspectos referidos en el propio escrito.

Ikusirik, 2021eko apirilaren 8an, José M^a Abad Urruzola jaunak HAPOk 48 Illarramendi HIEko a.3.01 eta c.05 lursailetakoa xehetasun-azterlana aurkeztu zuela. Azterlan hori 2021eko apirilean idatzi zuten José M^a Abad Urruzola eta Ana Goñi Agudo abokatuek eta Blanca Balda Sevilla arkitektoak eta bertan udal arkitekto aholkulariak 2021eko martxoaren 18an egindako txostenean adierazitako alderdiak zuzendu zituen.

Resultando que, con fecha 8 de abril de 2021, D. José M^a Abad Urruzola presentó el Estudio de Detalle de las parcelas a.3.01 y c.05 del A.I.U. 48 Illarramendi del PGOU, redactado con fecha abril de 2021 por los/as letrados/as D. José M^a Abad Urruzola y D^a Ana Goñi Agudo y la arquitecta D^a Blanca Balda Sevilla, en el que se subsanan los aspectos señalados en el informe emitido por la arquitecta asesora municipal con fecha 18 de marzo de 2021.

Ikusirik, Alkatetzak, 2021eko maiatzaren 14an emandako 898/2021 zenbakiko ebazpenaren bitartez, hasierako izaeraz onartu zuela aipaturiko xehetasun-azterlana, ebazpen berean jasotako

Resultando que la Alcaldía, mediante Resolución nº 898/2021 de fecha 14 de mayo de 2021, aprobó con carácter inicial el referido estudio de detalle, con las condiciones indicadas en la propia resolución: a) Con



Andoain Udala

baldintzekin: a) Dokumentua behin betiko izaeraz onartu baino lehenago, Sustapen Ministeritzako Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren txostena lortu beharko da, Andoain Donostiako aeroportuko aeronautika-zortasunen eraginpean baitago. Txosten hori 2021eko apirilaren 26an eskatu zen, eta b) c.05 hirigintza-fitxa zaharra zuzentzea, jabariaren araubide orokorra gehituz.

Ikusirik, ebazpena interesatuari jakinarazi zitzaioela eta xehetasun-azterketa eta espediente administratiboa jendaurrean jarri zirela. Horretarako iragarkiak argitaratu ziren udaleko iragarki taulan, 2021eko maiatzaren 28ko 99 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2021eko ekainaren 2 eta 3ko Gara eta Diario Vasco egunkarietan eta udal web orrian. 2021eko uztailaren 2an bukatu zen jendaurreko epe horretan ez zen inolako alegaziorik aurkeztu, udaleko idazkariak 2021eko uztailaren 16an egindako ziurtagirian egiaztatzen duen bezala.

Ikusirik, ebazpena eta xehetasun-azterketa Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentura eta URA-Agencia Vasca del Agua-ra bidali zirela, lege sektorialean aurreikusitako txostenak egin zitzaizkion.

Ikusirik, 2021eko maiatzaren 25ean jaso dela udaletxe honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak emandako aldeko txostena.

Ikusirik, 2021eko ekainaren 2an jaso dela Sustapen Ministeritzako Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren egindako aldeko txostena.

Ikusirik, 2021eko uztailaren 29an jaso direla Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta Ura-Agencia Vasca del Agua-k egindako aldeko txostenak, non hainbat baldintza jasotzen diren.

Kontuan izanik, jendaurreko epean ez dela inolako alegaziorik aurkeztu eta ikusirik Gipuzkoako Foru

carácter previo a su aprobación definitiva se debía obtener el informe de la Dirección de Aviación Civil del Ministerio de Fomento, ya que el término municipal de Andoain está afectado por las servidumbres aeronáuticas del Aeropuerto de San Sebastián, informe que había sido solicitado con fecha 26 de abril de 2021 y b) Se subsanara la vieja ficha urbanística c.05, añadiendo el Régimen general de dominio.

Resultando que la resolución fue notificada al solicitante y al resto de propietarios/as afectados/as y el estudio de detalle y el expediente administrativo fueron sometidos a información pública mediante publicación del anuncio en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 99 de fecha 28 de mayo de 2021, en los periódicos Gara y Diario Vasco de fechas 2 y 3 de junio de 2021 y en la web municipal, sin que durante dicho período, que finalizó el día 2 de julio de 2021, se haya formulado alegación alguna al respecto, tal como se indica en el certificado emitido por el Secretario de la Corporación con fecha 16 de julio de 2021.

Resultando que la resolución y el Estudio de Detalle fueron remitidos al Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa y a URA-Agencia Vasca del Agua, a fin de que se emitieran los preceptivos informes sectoriales.

Resultando que, con fecha 25 de mayo de 2021, se ha recibido en este Ayuntamiento el informe favorable emitido por el Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Resultando que, con fecha 2 de junio de 2021, se ha recibido el informe favorable emitido por la Dirección de Aviación Civil del Ministerio de Fomento.

Resultando que, con fecha 29 de julio de 2021, se han recibido los informes favorables emitidos por la Confederación Hidrográfica del Cantábrico y por Ura-Agencia Vasca del Agua, en los que se imponen una serie de condiciones.

Considerando que durante el período de información pública no se ha formulado alegación alguna y vistos



Andoaino Udala

Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak, Sustapen Ministeritzako Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta Ura-Agencia Vasca del Agua-k egindako aldeko txostenak.

Kontuan izanik, hasierako onarpena ematen zuen erabakian jasotako bigarren baldintza bete dela. Hori egiaztatzeko 2021eko maiatzean idatziko dokumentua aurkeztu da eta bertan c.05 hirigintza-fitxa zaharra zuzendu baita, bertan jabariaren araubide orokorra gehituz.

Ikusirik, era berean, udaleko behin-behineko idazkariak 2021eko abuztuaren 6an egindako txostena.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune lantsailak 2021eko irailaren 23a datako bileran emandako irizpena.

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Behin betiko izaeraz onestea HAPOko 48 Illaramendi HIEko a.3.01 eta c.05 lursailtako xehetasun-azterlana, José M^a Abad Urruzola eta Ana Goñi Agudo abokatuek eta Blanca Balda Sevilla arkitektoak idatzi zutena 2021eko urrian, 2021eko maiatzean aurkeztutako dokumentuan jasotako aldaketekin, non dokumentuaren hasierako onarpen-erabakian jasotako baldintza jasotzen den. Behin betiko onarpena Ura-Agencia Vasca del Agua-ren txostenean jasotako baldintza honekin ematen da: xehetasun-azterketa honetan burutuko diren lanen exekuzio proiektuan hurengo zehaztapen lotesleak bete beharko dira:

- Hornidura eta saneamendua kudeatzen duen erakundearen ziurtagiria, garapen proposamena berriei ekiteko azpiegitura nahikoak daudela bermatzen duena.

los informes favorables emitidos por el Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa, por la Dirección General de Aviación Civil del Ministerio de Fomento y por la Confederación Hidrográfica del Cantábrico y Ura.

Considerando que se ha dado cumplimiento a la segunda de las condiciones establecidas en el acuerdo de aprobación inicial, habiéndose presentado un documento redactado con fecha mayo de 2021, en el que se ha subsanado la vieja ficha urbanística c.05, añadiendo en la misma el régimen general de dominio.

Visto, asimismo, el informe favorable emitido con fecha 6 de agosto de 2021 por la secretaria acctal. de la corporación.

Visto el dictamen de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras, Medio Ambiente y Zona Rural en su reunión de fecha 23 de septiembre de 2021.

Debatido el asunto, la Sra. Alcaldesa somete a votación la propuesta y el Pleno de la Corporación, por unanimidad, con los votos a favor de la Sra. Alcaldesa y de los/as concejales/as de los grupos municipales de PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu y Elkarrekin Podemos, acuerda:

1.- Aprobar con carácter definitivo el Estudio de Detalle de las parcelas a.3.01 y c.05 del A.I.U. 48 Illaramendi del PGOU, redactado con fecha abril de 2021 por los/as letrados/as D. José M^a Abad Urruzola y D^a Ana Goñi Agudo y la arquitecta D^a Blanca Balda Sevilla, con las modificaciones introducidas en el documento presentado con fecha mayo de 2021, en el que se recoge la condición impuesta en el acuerdo de aprobación inicial del documento. La aprobación definitiva se otorga con la condición impuesta en el informe emitido por URA-Agencia Vasca del Agua, consistente en que en el proyecto de ejecución de las obras incluidas en el estudio de detalle se dé cumplimiento a las siguientes determinaciones de carácter vinculante:

- El certificado del ente gestor que garantice la suficiencia de infraestructuras de abastecimiento y saneamiento para acometer las nuevas propuestas de desarrollo.



Andoaino Udala

- Dokumentazio grafikoa, hondakin-urak inguruko ur beltzen saneamenduko udal-sarera nola konektatzen diren eta "Andoainen Ziako errekaen saneamendu-proiektua" delakoan egitea aurreikusten den kolektorera nola konektatzen diren adierazten duena. Girder Ingenieria enpresak idatzi zuen 2012an. Era berean, aditzera eman beharko du euri-urak Ziako errekaen trazadura berriarekin lotuko direla etorkizunean, Andoaingo udalerriko hiri-eremutik igarotzen den Ziako errekaen uholdeen aurkako defentsarako proiektuan gauzatu beharrekoak.
- Hondakin-uren saneamendua Adunako Uraldeko HUArI konektatuta egotea baldintzatu eta bermatzen duen ziurtagiria.
- La documentación gráfica donde se indiquen las conexiones tanto de las aguas residuales a la red de saneamiento de fecales existente en el entorno y su conexión al colector previsto ejecutar en el "Proyecto de Saneamiento de la Regata Ziako en Andoain", redactado por Girder Ingenieria en el año 2012. Asimismo, se deberá de indicar las futuras conexiones de las aguas pluviales al nuevo trazado de la regata Ziako a ejecutar en el proyecto de defensa contra inundaciones de la regata Ziako a su paso por el ámbito urbano del municipio de Andoain.
- El certificado que garantice y condicione al cumplimiento de que el saneamiento de las aguas residuales esté conectada a la EDAR de Uralde en Aduna.

2.- Behin betiko onespren-erabaki hau, aipatu Xehetasun-azterketaren hirigintza-araudiarekin eta ordenantzekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal web orrian argitaratuko dira.

2.- Publicar el presente acuerdo de aprobación definitiva, junto con la normativa urbanística y ordenanzas contenidas en el citado Estudio de Detalle, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la web municipal.

3.- Erabaki hau jakinaraztea Balfer Norte SL eta José Angel Gaztañaga enpresaren izen eta ordezkapenean jarduten duen José María Abad Urruzola jaunari, nola baita ere administrazio-espedituean interesatu gisa agertzen diren beste guztiei. Jakinarazpenean azalduko zaie, halaber, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez dezaketela Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan bertan adieraziko den epearen barruan.

3.- Notificar el presente acuerdo a D. José María Abad Urruzola, en nombre y representación de Balfer Norte SL y José Angel Gaztañaga, así como a todos/as aquellos/as que tengan la condición de interesados/as en el expediente administrativo, informándoles de que contra dicha resolución podrán interponer recurso contencioso administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan ziurtagiri hau eman dut, Andoainen sinadura datan.

Y para que así conste y surta los efectos convenientes, expido la presente en Andoain, a la fecha de la firma.

Idazkaria / El Secretario



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUF7290cce-6af6-480c-ba62-48222f5cca5a**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>**

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>**